



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a  
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

### GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Hizkuntza nahasmenduaren  
adierazle bila euskaraz: kasu-  
marka eta aditzaren komunztadura**

*Ainhoa Leyaristi Oñederra*

129-136 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.01.16>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



## **Hizkuntza nahasmenduaren adierazle bila euskaraz: kasu-marka eta aditzaren komunztadura**

Ainhoa Leyaristi Oñederra

UPV/EHU, ELEBILAB

[aleyaristi001@ikasle.ehu.eus](mailto:aleyaristi001@ikasle.ehu.eus)

### **Laburpena**

Lan honetan eginbidean dagoen Master Amaierako Lan baten egitasmoa aurkezten da. Helburua hizkuntza nahasmendua duten haur euskaldunen kasu-marka eta aditzaren komunztaduraren ekoizpena aztertzea da. Horretarako, lehenik, garapen tipikoaren ezaugarrien berrikusketa egingo da, hizkuntza nahasmenduaren eta garapen tipikoaren arteko muga zehaztuz; bigarren, datu-bilketa eta, hirugarren, aipaturiko patologia duen haur baten emaitzak tipikoekin alderatu. Lagin gisa 11 urteko hizkuntza nahasmendu zantzuak dituen haur bat eta adinkide dituen bi haur tipiko aukeratu dira, guztiak hizkuntza profil antzekoa dutenak. Ikerketak LITMUS-SR eta ipuin kontaketa izango ditu ardatz eta aipaturiko ezaugarri morfosintaktikoen ekoizpenean haur tipikoen eta atipikoaren artean aldeak espero dira.

Hitz gakoak: Hizkuntza nahasmendua, kasu-marka, aditz komunztadura, LITMUS-SR eta ipuin kontaketa.

### **Abstract**

*This paper presents an ongoing End of Master Thesis. The goal is to analyse case-marking and verbal agreement production by Basque children with Developmental Language Disorder. In order to determine the properties of language disorder, first, previous work on typical development must be reviewed; second, data has to be collected, and third, the results of typical and atypical participants have to be compared. The sample consists of three 11-year-old children (two typical and one with developmental language disorder sigs) who share language profile. The study will include LITMUS-SR and story-telling tasks. The prediction is that there will be significant differences between the typical and the atypical children in relation to the mentioned morphosyntactic characteristics.*

*Key words: Developmental Language Disorder, case-marking, verbal agreement, LITMUS-SR and story-telling.*

## **1. Sarrera eta motibazioa**

Hainbat ikerketek erakutsi dute *Specific Language Impairment* bezala ezagutu izan den hizkuntza arazoa duten haurren kopuruak ez direla emaitza isolatuak: haurren %3-7ak aipaturiko patologia pairatzen du (Norbury et al., 2016; Tomblin et al., 1997). Hizkuntzarekiko jabeak eta garapen atipikoarekin lotzen den fenomeno honek deitura anitz izan baditu ere (ikus Ebbels, 2014; Sanz-Torrent eta Andreu, 2021), egun, *Specific Language Impairment* (SLI) baino *Developmental Language Disorder* deitzea nahiago dute zenbait erakunde eta taldek. Euskaraz, beraz, *Hizkuntza Nahasmendu* gisa itzul dezakegu terminoa. Askok izan dezaketen ustearen aurka, gaitz hau ez da inongo adimen atzerapen edo bestelako baldintza baten albo ondorio, nahiz eta beste patologia batzuekin batera ager daitekeen. Laburki esateko, hizkuntza barne biltzen duen jarduera orotan ager daitekeen gaitz aldeaniztuna da ekoizpen zein ulermenean eragin dezakeena eta giza-harreman zein arlo akademikoan eragin nabarmenak izaten dituen (Bishop et al. 2017).

Hizkuntza nahasmenduaren sintomak zinez zail dira zerrendatu eta definitzen haur bakoitzak ezaugarri ezberdinak izaten baititu. Honez gain, hizkuntza batetik bestera alde nabarmenak daude. Alegia, baliteke ezaugarri morfosintaktiko bat hizkuntza batean bereziki arazotsu izatea, baina ez beste batean (Leonard, 2009; Paradis, 2007). Adibidez, aditzaren morfologiari loturiko ikerketek erakutsi dute, lehen hizkuntza gaztelania duten haur tipiko eta hizkuntza nahasmendua duten haurren arteko

aldeak ez direla esanguratsuak (Buiza-Navarrete et al., 2004; Bedore eta Leonard, 2005; Sanz-Torrent, 2002). Haur ingelesekin izandako probetan, ordea, hizkuntza nahasmendua zutenean eta ez zutenean artean hiru urteko aldea hauteman zen aditz morfologiaren zenbait ezaugarriren jabekuntza prozesuan (Rice eta Wexler, 2001).

EAE-ri dagokionez, ez dago hizkuntza nahasmenduaren inguruko datu ofizialik; honek ez du esan nahi, ordea, patologia hau duen umerik ez denik. Porquiék (2019; 2021) adierazten duenez bi dira gure inguruan hautemate prozesua oztopatzen duten faktoreak: hizkuntza egoera diglosikoa eta tresneria falta. Faktore hauek sarri praktika desegokiak bideratzen dituzte azpi- eta gain-diagnostikoak; hots, esku-hartzea behar duen haurrari baliabide eta arreta aproposa ez eskaintzea edo hizkuntza nahasmendua ez duen haurra ortofonista/logopedaren eskuetan jartzea, hurrenez hurren (Porquié, 2019, 2021; Tuller et al. 2018).

Ondorioz, euskarari loturiko hizkuntza nahasmenduak ikerketarako motibazio berezia pizten du jarraian zerrendaturiko premiak aintzat hartuz:

- Hizkuntza nahasmendua pairatzen dutenei beharrezko duten ikusgaitasun eta onarpena esleitzea.
- Euskal haurrak diagnostikatzeko tresneria eta materialaren gabezia.
- Euskararen jabekuntza prozesu atipikoa zehazteko beharra eta hizkuntzatik at dauden eragileetatik bereizteko edo jabekuntza berantiar hutsetik banatzeko premia.
- Jabekuntza atipikoa duten elebidunak izan ditzakeen tasun eta ñabardura ezberdinak ezagutzeko beharra.

Azken puntu hau gehiago zehazte aldera, Ramon-Casas eta besteren (2021) lana ekarri behar dugu gogora. Bertan, gaztelaniaz eta katalanez mintzo diren 4-5 urteko haur elebidunetan aldeak igarri zituzten /e/-/ɛ/ fonemen ekoizpen eta hautemate ariketetan. Badirudi haurrak nagusi duten hizkuntzak eragin nabarmena duela, alegia, elebidunen taldea hizkuntza gaitasun eta maila aldetik oso aberatsa da. Hori horrela izanik, pentsatzekoa da hizkuntza nahasmendua duen haur euskaldun orok ez duela jokabide berbera erakutsiko gaztelaniarekiko duen *input* kopuruak baldintzatuta.

## 2. Arloko egoera eta helburuak

Hizkuntza nahasmenduaren inguruko iruditeria orokor bat eskaini ostean, atal honek azken urteetan Espainiar estatuan eta bereziki Euskal Herrian (Hegoalde zein Iparraldean) egin diren aurrerapausoak aztertu eta lanaren helburuak zehaztuko ditu.

### 2.1. Behaketarako tresneria eta zenbait proba

Diagnostiko fidagarri bat egitea ez da beti lan erraza izaten hizkuntza nahasmenduen alorrean; are gehiago, Norbury eta besteren (2016) hitzetan 30 ikasleko bik hizkuntza nahasmendua izanzen du, baina hau oharkabean igaro ohi da.

Espainiar estatuan CELF (*Evaluación Clínica de los Fundamentos del Lenguaje*), PLON-R (Aguinaga, et al. 2005) edota LITMUS-NWR (dos Santos eta Ferré, 2016) probak erabili izan dira gaztelaniaz mintzo diren haurren diagnosiak bideratzeko. Proba hauek, ordea, Ferinu eta bestek (2020) azaldu bezala, muga nabarmenak dituzte; izan ere, gaztelaniaz izanik, elebidun diren haurrak aztertzeke ez dira aproposak. Antzeko gatazkak bestelako patologiak ikertzen dihardutenek ere aipatu dituzte. Esaterako, Villanueva-Sánchez eta bestek (2021) euskal afasikoen ikerketak burutzeko tresneria beharra aldarrikatu zuten.

Katalanak eta euskarak, biak hizkuntza gutxituak, egoera soziolinguistikoaren erronka, diagnostikorako tresneria eza, eta hizkuntza nahasmenduaren inguruko ezjakintasun orokorra dituzte oztopo. Sarri ez da jakiten haurrak erakutsitako gramatikaltasun eza hizkuntza arazo baten ondorio zuzena den, edota testuinguru soziolinguistikoak baldintzaturiko hizkuntza erabilera desegoki hutsa.

Kezka honek hizkuntza jabekuntzan diharduten ikerlari euskaldun zein ortofonistak bildu ditu eta elkar lanean erronka berri honi heldu nahi izan diote HIPIE (Hizkuntza Patologiaren Ikerketa Euskaraz eta Eleaniztunengan) sarea eratuz. Talde honen babesean HIGA (Hizkuntza Garapena Aztertzeke

Tresna) (Euskal Ortofonisten Elkarte et al., argitaratu gabe) deritzon materiala sortu zen eta 2021eko otsailetik eta ekainera bitartean Iparraldeko eta Hegoaldeko 4-8 urte bitarteko 500 haur euskaldun aztertzeke erabili zen. HIGA ez da hizkuntza nahasmenduaren diagnostikoa egiteko tresneria eskusiboa, alegia, material honek bi helburu nagusi zituen: euskararen garapen tipikoaren normak hobeto definitzea, eta garapen tipikoaren ezaugarriak ongi ezagutzuz, atipikoak diren zantzuak hautematea. Beraz, hizkuntza nahasmendua ez da tresnak zuzen-zuzenean jorratu nahi duen gaia, baina ekarpen aberasgarriak egiten dizkio arlo honi. Hots, garapen arrunta ongi ezagutu ezean, ezin daiteke joera bat atipiko denik argudiatu.


Arestian esan bezala, hiztun elebidunak aztertzeak bigarren mailako erronka bat aurkezten du. Tuller eta besteren (2018) aburuz, asmaturiko hitzen errepikapen ariketak (non-word repetition, NWR) eta esaldien errepikapen ariketa (sentence repetition, SR) dira haur elebidunak ikertzeko biderik aproposenak. Hau bera baieztatzeko, LITMUS (*Language Impairment Testing in Multilingual Settings*) deituriko proba erabili zuten (ikus 2.2. atala zehaztapen gehiagorako). Egun, Etxeberria eta beste (prestatzen) ari dira antzeko tresna euskal haurrengan erabiltzeko moldatzen.

## 2.2. HIGA eta LITMUS proben nondik-norakoak eta emaitzak

HIGA 13 ariketaz (3 ariketa fonologikoz, 6 ariketa lexikoz eta 4 ariketa morfosintaktikoz) osaturiko proba dugu eta ekoizpen zein ulermena, biak, aztertzen ditu. 2018-19 urte tartean, pilotu moduan erabili zen Euskal Herriko 31 umerekin eta handik bi urtera, 2021eko otsail-ekain tartean, 4-8 urteko 500 haur ikertzeko erabili zen. Bertatik eskuraturiko datuak aztertzeke, haurrak bi multzo nagusitan bereizi ziren: batetik, Iparraldekoak (parte-hartzaileen %51); bestetik, Hegoaldekoak (parte-hartzaileen %49). Erantzun onargarri eta ez onargarrien erabakia taldean adostu ostean, adinka aztertu ziren emaitzak (Porquié eta Ezeizabarrena, 2022).

Adizki ulermen (HIGA-11) eta deklinabidearen ariketaren (HIGA-12) emaitzak aztertuz, bi ondorio nagusi eskuratzen dira: 6-7 urte tartean dago adizkien ulermenaren egonkortzea, hortik aurrera erraz egiten baitute ariketa; deklinabidea, ordea, 7-8 urte bitartean oraindik arazotsua da.

### 1. irudia. HIGA tresna, EAEn



(Ezeizabarrena eta Murciano, prestatzen)

### 1. taula. Iparraldeko HIGA emaitzak, 7 urteko haurrekin.

Proba mota	HIGA-11	HIGA-12
Asmatze kopuruak, 7 urte	%92.11	%79.82

(Pourquié eta Ezeizabarrena, 2022)

Iparraldeko datuak laburtzen dituen taula aztertzen badugu, ohartuko gara deklinabide ariketaren (HIGA-12) emaitzak EAEn baino hobeak direla. Dena den, EAEn jazotzen den bezala, HIGA-12n emaitza apalagoak dituzte Iparraldeko haurrek HIGA-11n baino. Ondorioz, gramatikaren jabekuntza eta egonkortzea ulermen edo hautematea baino berantiarra da.

Datuak etxean gurasoek darabilten hizkuntza kontuan izanik aztertzean, euskaraz mintzo ziren horien haurrek ariketak hobeto egin zituztela ohartu ziren ikerlariak. Biribilduz, HIGA frogaren bidez, garapen tipikoa erakusten duten haurren jokabidea xehetasun handiagoarekin behatu da eta baieztatu garapen tipikoan ere badirela arazotsu suertatzen diren ezaugarri linguistikoak, adibidez, ezohiko hitzak (*korapiloa, labea, etab.*), hitzen amaierak (*-rentzat, -koa, -rekin, etab.*) edota adizki konplexuak (*dio/die* laguntzaileak dituztenak bereziki) (Pourquié eta Ezeizabarrena, 2022).

Ondorioz, beste behin egiaztatu da hizkuntzaren osagai denak ez direla modu bateratuan eskuratzen eta, beraz, bereziki arazotsu gisa identifikaturiko ezaugarriok hizkuntza nahasmendua duten horiengan ere nabarmenki deigarri izango direlako hipotesia eraiki dezakegu.

Dena den, inguratzen gaituen egoera soziolinguistikoa medio, HIGA tresnaz gain, bere osagarri izan daitezkeen beste hainbat behar ditugu euskarazko hizkuntza nahasmenduaren ezaugarritzea burutzeko. Ildo honetatik sortzen da Etxeberria eta beste (prestatzen) diseinatzen ari diren euskarazko LITMUS-SR proba.

Trensa honen oinarrian, Tuller eta besteren (2018) ikerketan erabilitako *Language Impairment Testing in Multilingual Settings* (LITMUS) tresna dago. Ikerlari hauek elebekarrak diren eta hizkuntza nahasmendua duten haurrak aztertzeko erabiltzen den errepikapen materiala ea elebidun direnak diagnostikatzeko aproposa den aztertu nahi izan zuten. Horretarako, Alemanian eta Frantzia bizi ziren 151 haur elebiduni (etxean arabiera, portugesa edo turkiera zerabiltenei) pasa zieten proba.

Parte hartzaileen %43 inguruk hizkuntza erabileraren terapia jasotzen zuen eta emaitzek adierazi zuten, LITMUS frogak arrakasta handiz hauteman zuen hizkuntza nahasmendua elebidun txikiengan ere. Honek esan nahi du esaldi zein hitz asmatuen errepikapenean oinarritzen diren ariketen bitartez Euskal Herrian bizi diren eta hizkuntza nahasmendua izan dezaketen haur euskaldunen diagnostiko goiztiar bat egin dezakegula.

### 2.3. Helburuak

Orain artean aipatu diren arazo ezberdinei aurre egiteko, hizkuntza nahasmenduaren inguruko lan sakon eta xehearen beharra dagoela ikusi dugu. Asmo honekin sortzen da *Hizkuntza nahasmenduaren adierazle bila euskaraz: kasu marka eta aditzaren komuntadura* Master Amaierako Lana. Jarraian, azterlan honen gaia eta aipagai dugun arloari egin nahi dion ekarpena zehaztuko dira.

*Hizkuntza nahasmenduaren adierazle bila euskaraz: kasu marka eta aditzaren komuntadura* lanak hizkuntza nahasmendua duen 11 urteko mutiko baten kasu-marka eta aditzaren komuntaduraren idatzizko zein ahozko ekoizpenenak ditu aztergai. Bi ezaugarri morfosintaktiko hauen jabekuntza eta bilakaera haur tipikoak ikergai izan dituzten zenbait lanek jorratu dituzte (Gutierrez-Mangado eta Ezeizabarrena, 2022; Duguine, 2016, etab.), baina hizkuntza nahasmenduaren baitan sekula ez da euskaraz lan sakonik egin. Bestalde, 1.atalean esan bezala, nazioarteko ikerlanek emaitza nahasiak erakutsi dituzte. Beraz, aditzaren komuntadura eta kasu-marka gaitzeren diagnostikoa euskal haurrengan bideratzeko irizpide aproposak diren edo ez ikertzea zinez interesgarria da. Ikerketak jarraian zerrendatuko diren helburuak izango ditu:

- 1) Hizkuntza nahasmenduari ikusgarritasun handiagoa ematea.
- 2) Hizkuntza nahasmenduaren kasu-markari eta aditz morfologiari buruzko datu gehiago izatea eta honen jabekuntza tipiko eta atipikoaren muga zehatzagoak ezartzea, atipikoaren bilakaera sakonago deskribatzeaz gain.
- 3) Euskal hizkuntza nahasmenduari buruzko ezagutza izatea.
- 4) Euskaraz prozesatzeko bereziki nekezak diren jardunbide linguistikoak identifikatzea.
- 5) Hizkuntza nahasmenduak euskaraz adierazten dituen ezaugarriak beste hizkuntzetakoekin alderatzea.
- 6) Etorkezinean diseinatu daitezkeen proba linguistikoetarako informazio aberasgarria eskaintzea.

### 3. Ikerketaren muina

#### 3.1. Lerro orokorrak

Aipaturiko MALa oraindik eginbidean dagoen ikerlana da eta hizkuntza nahasmendu zantzuak dituen haur euskaldun baten hizkuntza jabekuntza aztertzea izango du helburu. Zehatzago, gai morfosintaktikoak behatuko ditu: izen-sintagmaren kasu-marka (absolutiboa, datiboa eta ergatiboa) eta aditz komunztadura.

Haur tipiko euskaldunekin egin diren ikerketek erakutsi dute elebakar eta elebidunek kasu-markak zein aditz komunztadura egokia adin ezberdinetan berenganatzen dituztela (Ezeizabarrena et al. 2021; Huarte, 2021). Gainera, haurrek ergatiboaren ekoizpenean eginiko akats eta helduei zuzenduriko laborategiko zenbait ikerketa oinarri, ergatiboak, jabekuntzarentzat, gainerako kasu markek baino erronka handiagoa erakusten duela ondorioztatu izan da. Alegia, ezaugarri morfosintaktiko denek ez dute zailtasun bera (Ezeizabarrena, 2012; Zawiszewski eta Laka 2009; Zawiszewski, et al. 2011).

Errealitate honi beste ezaugarri bat erantsi behar zaio: aditz inergatiboak. Aditz inergatiboak iragangaitzak dira, baina beren subjektuak egilearen errol semantikoarekin lotu den *-k* morfema (ergatiboaren marka) darama. Ildo honetatik, neurozientzian erabilitako teknika ezberdinen emaitzek erakutsi dute aditz inergatiboen prozesamendua garapen tipikoa izaten duten horientzat ere bereziki konplexua dela (Agnew, et al. 2014).

Ikuspegi morfosintaktikotik kasu-marka eta aditz komunztadura gai beraren adierazle ditugu. Dena den, bada haur txikien ekoizpenetan ergatiboaren gabezia ikuspegi morfofonologikoaren bidez azaltzen ahalegindu denik (Elosegi, 1996). Proposamen honen baliozkotasuna, ordea, zalantzarikoa da; izan ere, haurrek ez dute absolutibo pluralaren ekoizpenarekin maila bereko arazorik (Ezeizabarrena eta Larrañaga, 1996). Beraz, orain arteko dena kontuan izanik, hizkuntza arazoa duen haurrak esaldi iragankor eta inergatiboetako kasu-marka zein aditz komunztaduran akats ugari egingo dituela espero dugu.

#### 3.2. Prozedura: partaideen aukeraketa, esperimendu aurretiko urratsak eta analisisa

Ikerketaren helburu den haurra 11 urteko mutikoa da. Etxean, bi gurasoek euskaraz egin diote beti eta D ereduko zentro batean ikasten du. Ez du adimen atzerapen edota bestelako gaitz kognitibo baten zantzurik, baina, hala ere, bere ikasketa zentroan diharduten profesionalek hizkuntzarekin ezohiko zenbait jarrera hauteman dizkiote eta, beraz, gure ikerketarako partaide aproposa dugu.

Berarekin batera, klasekide dituen beste bi haurren parte-hartzea aurreikusten da. Hauek helburu den haurraren profil linguistiko bertsua izango dute, alegia, etxean jasotako hizkuntza euskara hutsa izango da. Testuinguru linguistikoaren berri gehiago jakiteko, probak igaro baino lehen, Birdsong eta besteren (2012) galdetegi linguistikoan oinarritzen den euskarazko egokitzapen bat pasako zaie guraso eta haurrei.

Probak ikasleen zentroan gauzatuko dira ordubeteko bost saiotan, data zein orduak aurrez irakasle eta zentroko zuzendariekin adostuko dira. Haur bakoitza banaka aztertuko da eta denek egingo dituzte proba berdinak. Hizkuntza nahasmendua duten hainbat haurrek idatzizko adierazpena kaltetua izaten dutela erakutsi dute ikerketa batzuek (Sanz-Torrent, et al, 2010). Horregatik, ahozko ekoizpenaz gain, idatzizkoa ere behatuko dugu. Probak egin aurretik, zentroaren eta gurasoen baimen orriak zein UPV/EHUko etika batzordearen onespina bideratuko dira.

Esperimentuan gauzatuko diren probetan bi mendeko aldagai izango ditugu: denbora eta ongi igarritako emaitza kopurua. Datuak bildu eta aztertu ahal izateko, ahozko jardunean oinarritzen diren horiek grabagailuarekin batuko dira; idatzizkoak, berriz, paperean. Bestalde, grabagailu bidez, haurrak ariketa bakoitza egiteko behar izan duen denboraren informazioa gordetzeko aukera dugu.

#### 3.3. Materiala eta tresnak

Batetik, diseinatze eta hobetze fasean dagoen Etxeberria eta besteren (prestatzen) LITMUS-SR euskal frogar erabiliko da. Proba honek zailtasun ezberdineko esaldiak biltzen ditu eta bideo formatuan aurkeztuko zaizkie haurrei. Haurren zeregina entzundako *clip* bakoitzaren ostean esaldiak errepikatzea

izango da. Tuller eta besteren (2018) arrakasta bera balu, hizkuntza nahasmendua erakusten duen haurrak zailtasun nabarmenak izango lituzke bere adinkideen mailari eusteko.

Bestalde, istorio kontaketa oinarrituriko probak erabiliko dira; izan ere, haurren hizkuntza gaitasuna neurtzeko unean haur tipiko zein atipikoekin bideraturiko proba ezberdinek emaitza oso interesgarriak eskaini dituzte metodologia honen bidez (Huarte, 2021; Idiazabal eta Manterola, 2009; Gutiérrez-Clellen eta Heinrich-Ramos, 1993). Istorio kontaketatik bildutako datuak kodetu eta irizpide zehatz batzuen baitan aztertuko dira; honela, emaitzak elkarren artean alderagarri eginez. Bestalde, baliabide honek eremu akademikotik at kokatzeko aukera eskaintzen digu eta LITMUS-SR probarekin uztartuz, teknika natural eta esperimentalak bateratzea lortzen dugu emaitza aberasgarriagoak eskuratuz.

Diseinatzen ari garen probak ekintza ugariko bideo laburrak ditu oinarri. Haurrek, 3 minutu inguruz, ikerlariarekin batera bideoaren zati bat ikusiko dute. Modu periodikoan ikerlariak bideoa pausatu eta elizitazio ariketari ekingo dio hurrei galdera ezberdinak eginez. Asmoa haurrek ikusitako ekintza gehienak azaltzea izango da aditz zein argumentuak aipatuz eta esaldi osoak eraturaz.

Ahozko ekoizpena biltzen duen beste hirugarren proba bat ere izango da. Kontaketa bat biltzen duen istorio labur bat emango zaie hurrei irakurtzeko eta, ondoren, irakurritakoa azaltzeko eskatuko zaie. Irakurritakoa barneratzeke astia izan dutela ziurtatzeko asmoz, kontaktari ekin aurretik ea dena ongi ulertu duten edo denbora gehiago nahi duten galdetuko zaie ikasleei.

Azkenik, idatzizko ekoizpena lantzen duen ariketa bat eskatuko zaie. Bideo labur bat ezarriko zaie partehartzaileei. Hau behin ikusteko aukera baino ez dute izango eta, jarraian, idatziz azaldu beharko dituzte ikusi duten horren xehetasunak.

#### 4. Ondorioak

Ikerketaren emaitzak oraindik aztertzeke bidean daude. Dena den, hainbat aurreikuspen egitera iritsi gaitezke. Batetik, Barreña (1995), Huarte (2007) eta beste zenbaitek egindako lanek aipatu dute hiru kasu markei dagokienean, absolutiboa lehena izaten dela haurren jabekuntzan; ondorioz, pentsa daiteke hizkuntza nahasmendua duen 11 urteko haurrak ez duela arazo berezirik izango kasu-marka honekin.

Ergatiboa eta datiboari dagokienean ordea, zalantza gehiago izan ditzakegu. Batetik, garapen tipikoa duten aurren azterketek erakutsi dute izen-sintagman datiboa ergatiboaren aurretik azaltzen bada ere, aditzean alderantzizko ordena gauzatzen dela (Byrnes Austin, 2001). Agerpenaren hurrenkera edozein dela ere, izen-sintagman ergatiboaren gauzatzea mailakatua da (Barreña, 1995); datiboa, aldiz, agerpen unetik bertatik jarraitua (Zubiri, 1997). Beraz, datiboarekin baino ergatiboarekin izango dituela haurrak arazo gehiago aurreikusten dugu.

Aditz morfologiari begiratzen badiogu, HIGA frogako datuen arabera *nork-nori* egiturako aditz konplexuek (*dio/die*) EAEko zein Iparraldeko 7 urteko haur tipikoei erronka nabarmena ezartzen zieten (Pourquié eta Ezeizabarrena, 2022). Hizkuntza nahasmendua duten haurrek beren adinkideek baino jabekuntza berantiarra erakusten dutela kontuan izanda (Sanz-Torrent eta Andreu, 2021), pentsatzekoa da 7 urteko haur tipikoarentzat arazotsu den prozesu morfosintaktikoa oztopo izango dela baita garapen atipikoa duen 11 urteko haurarentzat ere.

Biribilduz, goian azaldutako kasuak esku artean haur tipikoez dakigun eta inguruko hizkuntzetan hizkuntza nahasmendua duten haurrengandik ondoriozta ditzakegun zenbait hipotesi baino ez dira. Kasu-marka eta aditz komunztadura euskal hizkuntz nahasmenduaren adierazle diren edo ez ikusteko ezinbestekoa da artikulua honetan deskribatu eta azaltzen ahalegindu garen ikerlana aurrera eramatea.

#### 5. Etorkizuna

Etorkizun hurbilean, hizkuntza nahasmendua erakusten duten haur euskaldunekin tesia garatzeko asmoa du *Hizkuntza nahasmenduaren adierazle bila euskaraz: kasu marka eta aditzaren komunztadura* MALaren egileak. Ikerketa berri horretan kasu-marka eta aditzaren komunztadura hainbat haur euskaldunen ekoizpenean ikertzea da helburu. Bide honetatik jarraituz, ea antzekotasun nabarmenik den beren artean ikus genezake eta ideia zein hipotesi sendoagoak eraiki.

Datu bilketa zabalagoak errealitatearen inguruko ikuspegi orokorrago eta osatuago bat eskainiko digu. Bertatik eskuraturiko zehaztasunek, ondoren, diagnostikoan lagun dezaketen tasunak hautemateko balioko digute eta esku-hartze goiztiar baterako ezinbesteko diren diagnostiko probak egiteko informazio baliagarria izango genuke.

Geroari begira, beraz, ezinbestean aipatu behar da arlo honetan ikerketak bideratzeko funts beharra eta gaitzarekin aurrez aurre diharduten profesionalak (ortofonista, logopeda, irakasle, etab.) prestatu eta laguntzeko tresnak diseinatuzko premia.

## 6. Erreferentziak

- Agnew, Z.K., Van de Koot, H., Mcgettigan, C. eta Scott, S. (2014). Do sentences with unaccusative verbs involve syntactic movement? Evidence from neuroimaging. *Language Cognition and Neuroscience*, 29(9),1-12.
- Aguinaga, G., Armentia, M.L., Fraile, A., Olangua, P. eta Uriz, N. (2005). *Prueba de lenguaje oral Navarra-Revisada*. TEA ediciones.
- Barreña, A. (1995). *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*. UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua.
- Bedore, L.M. eta Leonard, B.L. (2005). Verb inflections and noun phrase morphology in the spontaneous speech of Spanish-speaking children with specific language impairment, *Applied Psycholinguistics*, 26, 195-225. 10.1017.S0142716405050149
- Birdsong, D., Gertken, L.M., eta Amengual, M. *Bilingual Language Profile: An Easy-to-Use Instrument to Assess Bilingualism*. COERLL, University of Texas at Austin. Web. 20 Jan. 2012. <https://sites.la.utexas.edu/bilingual/>
- Bishop, D. V. M., Snowling, M. J., Thompson, P.A., Greenhalgh, T. eta CATALISE-2 consortium. (2017). Phase 2 of CATALISE: a multinational and multidisciplinary Delphi consensus study of problems with language development: Terminology. *Journal of Child Psychology and Psychiatry*, 58(10), 1068–1080. 10.1111/jcpp.12721
- Buiza-Navarrete J.J., Adrián-Torres J.A., González, M., eta Rodríguez, M.J. (2004). Evaluación de marcadores psicolingüísticos en el diagnóstico de niños con trastorno específico del lenguaje». *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología*, 24(4). 142-155. 10.1016/S0214-4603(04)75797-6
- Byrnes Austin, J. (2002). Language differentiation and the development of morphosyntax in bilingual children acquiring Basque and Spanish (Argitaratze Zenb. 3021351). [Doktoregotza Tesia, Cornell University]. ProQuest Dissertations Publishing.
- dos Santos, C. eta Ferré, S. (2016). A Nonword Repetition Task to Assess Bilingual Children's Phonology, *Language Acquisition*, 25(1), 10.1080/10489223.2016.1243692
- Duguine, I. (2016). Gestion des cas absolutif et ergatif en basque par des bilingues précoces basques-français, *Lapurdum*, 19, 201-217. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.3323>
- Ebbels S. (2014). Introducing the SLI debate. *International journal of language & communication disorders*, 49(4), 377–380. <https://doi.org/10.1111/1460-6984.12119>
- Elosegi, K. (1996). Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun batengan. (Argitaratze Zenb. 932531559). [Doktoregotza Tesia, UPV/EHU]. UPV/EHU Argitaratze Zerbitzua.
- Etxeberria, U., Ezaizabarrena, M.J. eta Prévost, P. (prestatzen). LITMUS.
- Euskal Ortofonisten Elkarteak, Pourquié, M. eta Ezeizabarrena, M. (argitaratu gabe). HIGA.
- Ezeizabarrena, M.J. (2012). The (in)consistent ergative marking in early Basque: L1 vs. child L2, *Lingua*, 122, 303-317. 10.1016/j.lingua.2011.11.009
- Ezeizabarrena, M.J., Garcia, I. eta Almgren, M. (2021). Elebidun txikien garapen lexiko eta gramatikala. In L. Diaz-de-Gereñu, I. Manterola eta I.M. Garcia-Azkoaga (Arg.), Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu: hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai (pp.37-60). UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua.
- Ezeizabarrena, M.J. eta Larrañaga, M.P. (1996). Ergativity in Basque: a problem for language acquisition? *Linguistics* 34(5), 955-991. <https://doi.org/10.1515/ling.1996.34.5.955>
- Ezeizabarrena, M.J. eta Murciano, A. (prestatzen).
- Ferinu, L., Ahufinger, N., Pacheco-Vera, F., Andueza, L. eta Sanz-Torrent, M. (2020). Dificultades morfosintácticas en niños y niñas de 5 a 8 años con trastorno del desarrollo del lenguaje a través de subpruebas del CELF-4, *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología*, 41, 17-28. <https://doi.org/10.1016/j.rfa.2020.05.002>
- Gutiérrez-Clellen, V. eta Henrich-Ramos, L. (1993). Referential cohesion in the narratives of Spanish-speaking children: a developmental study. *Journal of Speech and Hearing Research*, 36, 559-567.



- Gutierrez-Mangado, M.J. eta Ezeizabarrena, M. J. (2022). *Hotsetik hitzera: Hizkuntza eta euskararen jabekuntza*. Erein. ISBN: 978-84-9109-224-7.
- Huarte, M. (2007). *Ergatiboaren jabekuntza: ikerketa esperimental bat eta haren emaitzak* (Argitaratze Zenb. 932564911) [Doktoregotza Tesia, UPV/EHU]. UPV/EHU Argitaratze Zerbitzua.
- Huarte, M. (2021). Euskararen jabekuntza testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan: zer esaten diguten haurren testuek kasu gramatikalen erabilerari buruz. *Fontes Lingua Vasconum*, 134, 415-438.
- Idiazabal, I. eta Manterola, I. (2009). Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa, *Euskera*, 54 (2-1. zatia), 463-504.
- Leonard, L. (2009). Some reflections on the study of children with specific language impairment. *Child Language teaching and Therapy*, 25(2), 169-171. <http://dx.doi.org/10.1177/0265659009105891>
- Norbury, C. F., Gooch, D., Wray, C., Baird, G., Charman, T., Simonoff, E., Vamvakas, G. eta Pickles, A. (2016). The impact of non-verbal ability on prevalence and clinical presentation of language disorder: evidence from a population study. *Journal of Child Psychology and Psychiatry*, 57(11), 1247-1257. <http://dx.doi.org/10.1111/jcpp.12573>
- Paradis, J. (2007). Bilingual children with specific language impairment: Theoretical and applied issues, *Applied Psycholinguistics*, 28, 551–564. 10.1017/S0142716407070300
- Pourquié, M. (2019). *Projet d'études sur la création d'une école d'orthophonie en Pays basque spécialisée sur le plurilinguisme et associée à un programme de recherche*. Euskal Hirigune Elkargoa, IKER.
- Pourquié, M. (2021). Lexikoaren eta flexioaren azterketa translanguistikoa hizkuntza-arazoak dituzten haur heldu eleaniztunetan. In K. Erdozia, M. Santestebam eta A. Zawiszewski (Arg.), *Bi hizkuntza garun bakarrean*. UEU Argitalpen Zerbitzua.
- Pourquié, M. eta Ezeizabarrena, M.J. (2022). *Haur euskaldunen hizkuntza arazoak antzemateko testa (4-8 urte)*. UPV/EHUko Uda Ikastaroetako hitzaldia. Lesaka, 2023-9-17.
- Ramon-Casas, M., Cortés, S., Benet, A., Lleó, C. eta Bosch, L. (2021). Connecting perception and production in early Catalan–Spanish bilingual children: language dominance and quality of input effects. *Journal of Child Language*, 50, 155–176. 10.1017/S0305000921000787
- Rice, M., eta Wexler, K. (2001). *Test of Early Grammatical Impairment*. The Psychological Corporation.
- Sanz-Torrent, M. (2002). «Los verbos en niños con Trastorno del Lenguaje». *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología*, 22(2). pp. 100-110. [https://doi.org/10.1016/S0214-4603\(02\)76227-X](https://doi.org/10.1016/S0214-4603(02)76227-X)
- Sanz-Torrent, M. eta Andreu, L. (2021). El Trastorno del desarrollo del lenguaje (TDL): Dificultades lingüísticas y no lingüísticas. *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología*, 41, 1-3. <https://doi.org/10.1016/j.rlfa.2021.01.001>
- Sanz-Torrent, M., Andreu, L., Badia, I. eta Serra, M. (2010). El proceso lector en niños con antecedentes de retraso y trastorno específico del lenguaje. *El proceso lector en niños con antecedentes de retraso y trastorno específico del lenguaje*, 30(1), 23-33.
- Tomblin, J. B., Records, N. L., Buckwalter, P., Zhang, X., Smith, E. eta O'Brien, M. (1997). Prevalence of specific language impairment in kindergarten children. *Journal of Speech Language Hearing Research*, 40(6), 1245-1260. 10.1044/jslhr.4006.1245
- Tuller, L., Hamann, C., Chilla, S., Ferré, S., Morin, E., Prevost, P., dos Santos, C., Ibrahim, L.A. eta Zebib, R. (2018). Identifying language impairment in bilingual children in France and in Germany. *International Journal of Language Communication & Disorder*, 53(4), 888-904.
- Villanueva-Sánchez, I., Ozamiz-Etxebarria, N., Munarriz-Ibarrola, A. eta Pourquié-Bidegain, M. (2021). Afasiaren ebaluazioa eta tratamendua euskaldunengan: Euskal Herriko egungo egoeraren azterketa. *Academia de Ciencias Médicas de Bilbao*, 118(2), 81-90.
- Zawiszewski, A., Gutiérrez, E., Fernández, B. eta Laka, I. (2011). Language distance and nonnative language processing. Evidence from event-related potentials. *Bilingualism: Language and Cognition*, 14(03), 400-411.
- Zawiszewski, A. eta Laka, I. (2009). Parameters of grammar and maturational effects: an ERP study on ergativity and object-verb agreement processing by native versus nonnative speakers of Basque. A supplement of the *Journal of Cognitive Neuroscience*, 122-123. ISSN: 0898-929X, eISSN: 1530-889.
- Zubiri, J.J. (1997). Izen sintagmaren determinazioaren eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte (Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren garapena) (Argitaratze Zenb. 932526821) [Doktoregotza Tesia, UPV/EHU]. UPV/EHU Argitaratze Zerbitzua.

## 7. Eskerrak/Aipamenak

Eskerrak eman nahi nizkioke ELEBILAB ikertaldeari eta Maria Jose Ezeizabarrenari emandako laguntzatik. Nire esker onak baita M. P. Bidegain, A. Murciano, U. Etxebarria eta P. Prévosti beren material eta informazioa nirekin partekatzearen.